

LANKIDETZAN

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Talde-elkarrizketa eta -lana.

Lankidetzat.

17. GJHa

Iraupena

Saio bat.

Materiala

Eranskineko materialen fotokopiak (talde bakoitzeko bana)

Aldez aurreko gogoetak irakasleentzat

Ikasleak sei laguneko taldetan banatzen dira. Talde bakoitzaren barruan, bost lagunek petrolio konpainien ordezkari izango dira, (A-tik E-ra izendatzen dira), eta batek taldearen behatzaile gisa jardungo du. Zenbakiak doitu behar izanez gero, talderen batean 4 petrolio-enpresa izan daitezke. Interesatzen zaiguna da hainbat talde izatea, jarduketak alderatu ahal izateko, hausnarketa aberatsagoa izan dadin.

Pixka bat lehenago, beren jarraibideak azaldu behar zaizkie behatzaile gisa jardungo duten pertsonen, eta beren zereginerako beharko dituzten bi koadroak eman behar zaizkie (eranskineko 1. eta 2. taulak).

Jarduera honen helburua da lankidetzaren garrantziaz jabetzea. Hasierako planteamendua anbiguo samarra da, era honetan interpreta baitaiteke:

- "Petrolio-konpainia" bakoitzak ahal den gehiena irabazi behar du (lehia, akordiorik eza).
- Taldeko "petrolio-konpainia" guztiek batera irabazi behar dute ahal den gehiena (lankidetzat).

Beharrezkoa izanez gero, azken hausnarketan ikusarazten zaie ezen, printzipioz, konpainia guztiak puntuazio eta aukera berberekin abiatzen direla, baina irabaziak antolatze moduaren arabera, batzuek gehiago irabazteko, besteek gutxiago irabazi behar dutela. Lankidetzan aritu ezean, berehala sortzen dira gorabeherak haien artean, eta zailagoa da akordioak lortzea.

Garapena

Ikasleak taldeetan banatu. Eskatu ea nork eskaintzen duen bere burua behatzaile izateko, horien jarraibideak azaldu eta eman beren materialak.

Azaldu, oro har:

"Petrolio-konpainien ordezkariak zarete, eta elkartu zarete aztertzeke ea petrolioaren prezioak igotzea egokia ote den.

Zuen helburua, petrolio-konpainia zareten aldetik, ahalik eta diru gehien irabaztea da. Hori kontuan izan behar duzue gainerako konpainiekin negoziatzeko orduan, eta datozen sei hilabeteetan zuen moduak erabakiko dituzten sei bozketak egiteko orduan. Prozesua hau izango da:

- Behatzaile gisa jarduten duen pertsonak erakutsiko du bozketaren arabera lortutako hileko irabazien taula, eta taldeari lagunduko dio lan-dinamikan.
- Lehenengo gauza da bozketen inguruan konpainiek egingo duten negoziazioa, irabazien koadroa ikusita. Negoziazioa amaitzen denean, ordezkari bakoitzak isilpeko bozketa egin behar du paper batean. Paper horretan, bere konpainiaren letra ere jarriko du, eta behatzaileari emango dio.
- Behatzaileak boto guztiak jakinaraziko ditu eta konpainia bakoitzaren irabaziak edo galerak jarriko ditu dagokion koadroan.
- Bozketa bakoitzaren ondoren, ordezkarietako bat ematen zaie hitz egiteko eta negoziatzeko, hurrengo bozketari ekin aurretik, seigarren bozketara iritsi arte.”

Talde guztiek sei aldiz bozkatu dutenean, guztien arteko hausnarketa egingo dugu.

Gogoeta

Denok batera hausnartzea honelako galderetatik abiatuta:

Hasteko, taldeetako behatzaileei galdetuko diegu:

- Errespetatu al dira hartutako akordioak? Lankidetzarik egon al da?
- Hala izan ez bada, zergatik gertatu da? (akordioak hautsi, akordiorik eza, jarrera oso itxiak) Zer ondorio izan ditu?
- Nola sentitu dira taldeko pertsonak? Zer adierazi dute?

Behatzaile guztiek hitz egin ondoren, oro har galdetzen da:

- Nola sentitu zarete taldean?
 - Zaila egin al zaizue adostasuna lortzea?
 - EZ bozkatu baduzue, zer pisu izan du zuen erabakian taldeko gainerako pertsonak bozkatu behar zutenak eragiten zizuen konfiantza faltak?
 - Zuen ustez, zein zen jostaketaren helburua? (konpainiek aukeratu ahal dute, irabaztea edo lankidetzak-akordioak lortzea)
 - Zer ikasbide ateratzen duzue jarduera honetatik?
-
- Uneren batean planteatu al duzue jarrera kritiko bat egitura ekonomikoen aurrean, ikusirik haien lehentasunak direla etekinak lortzea, eta pertsonen eta enpresen arteko lehia?
 - Talderen batean sortu al da ingurumenarekiko kezka, botoak planteatzeko orduan?
- Zuen botoa desberdina izango ote zen ingurumena zaintzearen gaia sartu balitz, guztion ondasun gisa eta etekinak lortzearen aurretik lehenetsita?

Eranskina

Behatzaile ariko diren pertsonentzako jarraibideak

Taldeari lagundu behar diozu jardueraren dinamikari buruz dituzten zalantza guztietan, baina ez dagozkizu, ez zure iritzia ematea aukerarik onenei buruz, ez alde batera edo bestera bozkatzera gonbidatzea, ez eta akordioak lortzera motibatzea ere.

Erakutsi *Hileko irabazien koadroa* eta azaldu negoziatu behar dutela BAI edo EZ bozketei buruz.

Beren bozketa idatzi behar dute beren konpainiaren letrarekin identifikatutako paper batean. Helburua ez da bozketa sekretua izatea (jakin behar baita), baizik eta, botoa emateko unean, gainerako pertsonen bozkatu dutenaren eraginik ez jasotzea.

Guztira sei bozketa egingo dira, eta haien aurretik negoziazio-aldi bat, taldeak beharrezkoa ikusten badu.

Talde bakoitzaren irabaziak edo galerak apuntatuko dituzu *Irabazien eta galeren taulan*

1. taula. Hileko irabazien taula

		Bozketa	
Erregaien prezioen igoera?		Bai	Ez
Erabateko akordioa	Guztiek BAI bozkatzten dute. 5M (milioi) irabazten dute.	5M	
Adostasunik gabe	BAI bozkatzten dutenek 1M lortzen dute eta EZ bozkatzten dutenek 10M irabazten dituzte	1M	10M
Erabateko desadostasuna	Denek EZ bozkatzten dute. 5M galtzen dituzte		-5M

2. taula. Irabazien eta galeren taula

Konpainiak					
Bozketa	A	B	C	D	E
	Irabaziak/galerak bozketa bakoitzean				
1					
2					
3					
4					
5					
6					
Guztira					

KATE-MAILAK**Jarduera honekin hau landuko dugu:**

Konpromisoaren eta lankidetzaren balioa.

17. GJHa

Iraupena: saio bat.

Kontuan hartu beharrekoak

Bigarren fasean, kontu handiz ibili behar da arauak bete daitezen, ezinezkoa izango baita objektuak helmugara iristea horiek errespetatzen ez badira.

Garapena**1. fasea**

Eskatu ikasleei ilaran jar daitezen, U handi bat osatuz, hornei ahalik eta gehien itsatsita. Besoak luzatu behar dituzte, gurutzea eginez, eta elkarrengandik aldendu, hatz puntekin bakarrik elkar ukitu arte. Gero besoak jaitsi behar dituzte.

Ikasle guztiak beren lekuan kokatu ondoren, azaldu ezazu U-aren mutur bakoitzeko lehen pertsonari objektu bat emango zaiola (boligrafo bat izan daiteke, adibidez), eta helburua dela objektu horietako bakoitza U-aren beste aldera iristea.

Bete beharreko funtsezko arau batzuk daude:

1. Ezin dituzte oinak mugitu, dauden lekuan mantendu behar dira.
2. Ezin dute objektua jaurti, ondoko pertsonari pasatu behar diote, eskuekin kontaktu zuzena eginez.

Mundu guztiak jarraibideak argi dituenean, mutur bakoitzeko lehen pertsonari objektua ematen zaio eta jarduera hasten da.

Lehen fase hori amaitzean, taldearekin hitz egingo dugu gertatutakoaz:

- Iritsi al dira bi objektuak katearen amaierara?
- Bidean zailtasunik sortu al da?
- Asko kostatu al zaigu objektua pasatzea?

2. fasea

Jarraian, edozein pertsonari, U-ren erdialdean, eskatuko diogu katetik ateratzeko. Objektuak jatorrian entregatzen dira berriro, eta beste muturrera iristeko eskatzen da berriro.

Egin gogoeta

Komentatu talde handian honelako galderekin:

- Bigarren aldian, lortu al dute objektuek azken helmugara iristea? Zein izan da arrazoia?

Katean pertsona bakar bat falta bada, ezin izan da ezarritako helburua bete.

- Zer esaten digu horrek kate bat osatzen duten katebegien garrantziaz?
- Kate baten katebegiak gara?
- Bada printzipio bat dioena: "Kate bat ez da bere katebegi ahulena baino indartsuagoa". Esaldi hori hausnartu.

Jarduera honetan landutakoa aplikatzeko modu bat izan daiteke taldeko ikasle guztiak ukitzen dituen gai garrantzitsu bat bilatzea eta honako hauek komentatzea:

- Arazo komun bat planteatu daiteke, eta hori konpontzen saiatu ahal da, inplikaturako pertsona guztien parte-hartzerik gabe?
- Eztabaidatu nola aplikatuko genukeen fenomeno hori gure bizitzako beste esparru batzuetan (familia, lagunak, auzoa...) Zer parte-hartze maila dugu horietako bakoitzean?

Zortzigarren helburuari buruzko informazioa bilatu, haren jomugak eta haien esanahia.

- Posible da hori lortzea nazioarteko lankidetzaz zabal bat lortu gabe?
- Nola lagundu genezake gure errealitate pertsonaletik kontzientziazteko?